

KUTXABANKEK JASANGARRITASUNEAN ERAGINA DUTEN 25 EKIMEN BAINO GEHIAGO AURKEZTU DITU

- Horretarako sortu du *Kutxabank Eragin*, bankuaren barruko jasangarritasun-arloa, eremu horretan proiektu berriak bultzatzeko egoitza propioa duena.
- Proiektuak lehentasunezko intereseko bost gune ditu: ingurunearen gizarte-garapena, ingurumenaren zaintza, finantzaketa jasangarria, finantza-prestakuntza eta hustutako lurraldeak.
- Zeharkako bultzada edo sustapen-funtzioa duenez, Kutxabank Eraginek helburu hau ezarri du: erakundeak 10.000 MM euroko finantzaketa jasangarria lortzea datozen bi urteetan.
- Jasangarritasun Batzorde bat izango du, zuzenean Lehendakartzaren mende egongo dena, ekimen berriei buruz eztabaidatzeko eta horiek bultzatzeko.
- *Kutxabank Eragin* Fernando López de Eguilazek zuzentzen du, proiektuarekin konprometitutako giza talde batekin batera. Lantalde hori indartuta dago zerbitzurik onena eskaintzeko eta gizartean eragin positiboa areagotzeko.

2024ko maiatzaren 27a. Kutxabankek aurrerapauso bat eman du Kutxabank Eragin sortuz; bankuaren barruan jasangarritasun-arloa da, jada 25 ekimen baino gehiago biltzen dituena eta esparru horretan proiektu berriak bultzatzeko egoitza propioa duena. Kutxabank Eragin Fernando López de Eguilazek zuzenduko du, programarekin konprometitutako giza talde batekin batera. Lantaldea hori indartuta dago zerbitzurik onena eskaintzeko eta gizartean eragin positiboa areagotzeko. Ekintza arduratsua da, banku-fundazioek egiten duten gizarte-lan handia babestu eta horrekin bat egiten duena.

Kutxabank Eragin-ek bere kokalekua du, eta ofizialki gaur ireki da, Anton Arriola Kutxabankeko presidentea, Juan Mari Aburto Bilboko alkatea eta Arantxa Tapia Eusko Jaurilaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua bertan

zirela. Bilboko Poza Lizentziatuaren kaleko 3. zenbakian dago, arloaren kudeaketa integrala zentralizatuko du eta eraginkorragoak izatea erraztuko du. Gainera, proiektuak Jasangarritasun Batzorde bat izango du, zuzenean Lehendakaritzaren mende egongo dena, ekimen berriei buruz eztabaidatzeko eta horiek bultzatzeko; bere Jasangarritasun politika jarduera-esparruaren giltzarria izango da; eta ekintza-eremu bat, bankuak datozen bi urteetarako ezarri dituen helburuei erantzungo diena.

Jarduera-arloak

Erakundeak lehentasunezko intereseko bost gune ditu bere jardueran: ingurunearen gizarte-garapena, ingurumenaren zaintza, finantzaketa jasangarria, finantza-prestakuntza eta hustutako lurraldeak.

1. Gizarte-garapena: Datozen hilabeteetan, bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako mikrokredituen programa hasiko du Kutxabankek. Gazteen soldata-justizia sustatzea dago bere lehentasunen artean, eta, horretarako, soldata-igoerak barne hartzen dituen plan bat jarri da abian (% 14ko igoera bi urtean gazteen ordainsarian, eta % 17ko igoera praktiketako kontratuen kasuan, adibidez). Gainera, erakundeak egindako Berdintasun Planak bere jarduera guztietan emakumeen eta gizonen arteko genero-ekitatearekin duen konpromisoa jasotzen du. Era berean, bankuak urteak daramatza izaera sozialeko enpresekin kontratatuzeko konpromiso irmoa hartzen.
2. Ingurumena: alde horretatik, Euskadin 982,77 hektarea baso kudeatu dira: Gipuzkoan 859,23 ha, Araban 79,14 ha eta Bizkaian 44,4 ha. 2020. urtetik, bankuak 300 hektarea baino gehiago birlandatu ditu, CO2 xurgatzeko ahalmen handia duten 250.000 espezie baino gehiagorekin. Ildo horretan egindako ekintzekin bakarrik, erakundeak 50 urtez sortutako karbono-aztarna partzialki konpentsatzea ahalbidetuko du.
3. Finantzaketa jasangarria: Kutxabankek erantzun dituen finantzaketa-premien zati handi bat iraunkortasun edo jasangarritasunaren parametroen barruan sartzen da. Taldeak finantzaketa jasangarrian 929,8 milioirekin itxi du hiruhilekoa, hau da, % 57,4ko igoerarekin. Hazkunderik esanguratsuen enpresa

eta erakundeetako bankan gertatu da, 714 milioi euroekin guztira, neurri handi batean ESG irizpideen barruan sartutako eragiketa korporatibo garrantzitsuak sinatu izanari esker. Hipoteka-mailegu 'berdeak' % 12 igo dira nabarmen uzkurtutako merkatuan, eta hipoteka-eremuan formalizatutako errubrika guztien % 27 ziren martxoaren amaieran. Testuinguru horretan, eta zeharkako bultzada edo sustapenaren funtzioarekin bat etorritik, erakundeak hurrengo bi urteetan finantzaketa jasagarriko 10.000 MM euro lortzea jarri du helburutzat Kutxabank Eragin-ek.

4. Finantza-prestakuntza: programak gazteentzako zein adinekoentzako prestakuntza eskaintzen du. 9 urtetan, EAEko hiru probintzietako 17.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute gazteei zuzendutako finantza-hezkuntzako programan, eta nabarmentzekoa da, 2023an bakarrik, 65 ikastetxetako 2.049 gaztek jaso dutela prestakuntza. Aldi berean, 55 urtetik gorako 318 pertsonak jaso dute banku-tresna digitalen erabilerari buruzko prestakuntza praktikoa urte berean.
5. Hustutako lurraldeak: Kutxabank lurraldeko 20 udalerri txikienetatik 16ra iristen da bere bulego mugikorraren bidez. Horrek banku-sarbidea bermatzen du beste batzuk iristen ez diren urrutiko eremuetan, eta, horrela, finantza-inklusioaren eta aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoa erakusten du. Gainera, banku-bulegorik ez duten Euskadiko herrien ia % 60an kutxazain automatikoak ditu.

“Gure prozesu guztietan jasagarritasuna sustatzeko lan egin behar dugu, gure gizarte-ingurunean ahalik eta eraginik handiena izan dezan. Ekintza jasagarriak ezarri dizkiogu helburu geure buruari, eta, horretarako, sustatu, finantzatu eta, zergatik ez, lehenetsi egin behar ditugu. Iraunkortasun edo jasagarritasunaren bidean elkarrekin hobetzen lagundu behar diegu gure hornitzaile, bezero partikular eta enpresei”, nabarmendu du López de Eguilazek.

Kutxabank Eragin zifratan

- 25 ekimen baino gehiago iraunkortasun edo jasagarritasunaren arloan.

- Zeharkako bultzada edo sustapen-eginkizunaren arabera, Kutxabank Eraginek helburu hau ezarri dio bere buruari: datozen bi urteetan erakundeak 10.000 MM euroko finantzaketa jasagarria lortzea.
- 9 urtean 17.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute finantza-prestakuntzan.
- 2023an, 55 urtetik gorako 318 pertsonak jaso dute banku-tresna digitalen erabilerari buruzko prestakuntza praktikoa.
- Euskadin 982,77 hektarea baso kudeatu dira, eta horietatik 300 baino gehiago erakundeak basotu ditu.
- Bankuak CO2 xurgatzeko gaitasun handiko 250.000 zuhaitz landatzen parte hartu du.
- Hipoteka berdeak produkzio berriaren % 27 izan dira jada 2024ko lehen hiruhilekoan.
- Lurraldeko 20 udalerrri txikienetako 16ra iristen da Kutxabank bere bulego mugikorraren bidez.
- Banku-bulegorik ez duten Euskadiko herrien ia % 60an dago kutxazain automatikoekin.

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea. Gainera, Kutxabank Taldearen jarduerak zuzenean edo zeharka euskal BPG osoaren % 14,23ko ekarpena egiten du, eta lurraldeko enpleguaren % 15,1 sortzen du.